

GIG 48

ARBIL MENDIKO LAPIAZA

BALIO INTRINTSEKOA: **2,50**
 BALIAGARRITASUN-MAILA: **3**
 KALTEBERATASUN-MAILA: **1**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Lapiaza ondo garatuta dago Geoparkeko mendigune karstiko guztietan, baina kotarik altuenetan baizik ez da ageri *biluzik*, halakoetan baino ez dago ikusgai; besteak beste, Arbil eta Sesiarte mendietan. Arbil mendiaren hego-mendebaldeko aldeak lurraldeko lapiaz ikusgai zabalenetako bat ageri du. Ingu-ruko hezetasun-maila altua dela eta, lurzoru ugari sortzen da, eta landaretzak laster inbaditzen du hura.

Lapiazak sarbegi naturalak dira, eta haietan zehar euri-ura barneko sistema hidrologikora iragazten denez, eragotzi egiten dute azalean jariatzerik gertatzea. Karstifikazio-prozesuek disolbatu eta higatu egiten dute kareharrria. Ura, apurka-apurka, arroka zulatuz joaten da barrurantz, eta denborak aurrera egin ahala, bide nagusi batzuk sortzen dira; haietan zehar erraz igarotzen da ura. Prezipitazio handiak gertatzen direnean, ura barne-barneraino iragazten da lapiazean zehar, eta azalean ez da inolako jaria-tzerik sortzen, iragazkortasun handiko lekua baita.

Aztergai dugun honetan, diaklasetan zehar sortu da ugari den lapiaz-mota, eta *kluftkarren* edo *grikes* motako formazioak eratu dira horrela. Tarteka, leku malkartsuagotan, ildaska-itxurako lapiazak ere sortzen dira: *rinnenkarren* deritzenak.

NOLA BERTARATU

Sasiola auzoan Gi-3292 errepeidea hartu behar da, Lasturko haranaren sarreraraino.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

Lasturko haranean sartzeko gaina (Elkorrieta) oso leku ona da, eta Kortaberri baserria ere bai.



Arbil mendiaren ikuspegi panoramikoa, errepidetik ikusita.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):
 X= 551978 m / Y= 4790994 m / Alt.= 225 m



Rinnenkarren motako disoluzio-egiturak, Elkorrieta inguruan.